

# BERBAROTARRA 17. zk. 1998ko martxoa

**Barbaro Elkartea, duela 9 urte sortu zenez gero, izan duen helburu nagusietako bat Durangon euskara zerbitzua martxan jartzea izan da. Eta, gaur egun, ez burukomin gitxi barik, lortuta dagoela esan dezakegu.**

## Badaukagu Euskara Zerbitzua



Esan bezala AEK-rekin batera aurkeztutako proiektua onartu egin du Udalak eta urte amaiera arteko lan hitzarmena sinatu dugu martxoan Udalak, Barbarok eta AEK-k.

Udaletxeko itzultzaile eta euskara teknikariaz gain, Fernan Ruiz AEKn irakasle izandakoak sendotu berri den Euskara Zerbitzuko ardura-dunak izango dira.

Administrazio barrura begira eta herrian lan egiteko asmoa dago.

Aurten, besteak beste, merkatarien euskalduntze planari jarraipena eman, kirol monitoreen euskalduntzea bultzatu, guraso erdaldunak euskalduntzea, jai batzordea zein udaleko zerbitzu ezberdinen barne funtzionamenduan euskara txertatzea eta administrazioan euskararen erabilera gehitzea izango dira asmoak.

## Hamaika ahalegin

Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak hogeita mila biztanletik gorako herrietan euskara zerbitzua egon behar dela aipatzen du, hiru teknikariz osatutakoa: itzultzailea, administraria eta dinamizatzailea. Durangon, 23.000 biztanle dituen herri honetan, teknikari-itzultzaile baina ez da egon orain arte.

Argi dago Barbaro elkarteak bakarrik ez duela euskaldunduko herria. Denok egin beharko dugu zer bait eta Udalaren lana ente batzuen aurrean derrigorra da.

\* 1992an Euskara kontseiluan

Barbarok zuen ordezkariak eta Roman B. lehenengo proposamena egin zen.

\* 1993ko abuztuan Durangoko Normalizazio plana prestatu zuten Euskara kontseiluan. Udalbatzak aho batez onartu zuen. Lau urtetan Euskara Zerbitzu barik egon zen.

\* 1997. urtean Barbaroren lehen-tasunetako bat udalak Euskara Zerbitzua martxan jartzea. Horretarako kanpaina eraginkor bat prestatzea erabaki zen.

\* 1997ko maiatzean euskararekin zerikusia zuten Durangoko 11 elkarte batu eta Euskara Zerbi-


tzua eskatuz kanpainari hasiera eman genion. Barbaro antolatzaile eta gidari moduan zela. Erakunde guzti hoiek sinatutako triptikoa buzoneatu zen herri guztian eta horren ostean alderdi guztiakin batu ginen.

\* 1997ko urte amaieran eta udal gobernuaren erabakiz deialdia prestatzen hasi zen udaleko teknikaria.

\* 1998ko otsailaren 23rako proiektua aurkeztu genuen AEK eta Barbaroren artean eta udaleko organu ezberdinek aztertu eta onarpena jaso ondoren onartu egin da.

## bagabiltza bagabiltza bagabiltza bagabiltza

**1.000 harri behar dituzte Urruñan Ikastola eraikitzeko.** Lelo horrekin laguntza eske kanpaina egiten ari dira Euskal Herri osoan. Harri bakoitzak 10.000 pezeta balio ditu eta eroslearen adierazgarria eramango du emandako laguntzaren seinale. Norbere poltsikorako diru nahiko dela iruditzen bazaizu ere, koadrilan harri bat erostera animatu denik ere badago. Berbaroren bitartez zuk edo zure koadrilak lortu dezake harria.



**Durangoko Institutuan Hizkuntz Normalizazioarako Proiektua** jarri da martxan eta horretarako eratu den batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ekintza hoietak baten Berbako ordezkariak hartuko dute parte. (Agenda ikusi)

**Barazkizaleen ikastaroa amaitu da.** Hamabi lagunek parte hartu dute, nahiz eta izen ematea bi ikastaro egiteko bestekoa izan. Ikasi dutena praktikan jartzeko afaria antolatu ei dute hil honetarako.



**ERAZek 5 urte beteko ditu apirilaren 23an.** Berbaroren ekimenez sortutako eskualdeko aldizkariak Durangaldeko komunikabideen artean lekua izatea lortu du eta euskararen normalkuntzan ere eragina baduela esan genezake, euskaraz sekula ezer irakurri ez duena ERAZi esker euskal irakurle baita (6.000). Lustrua ospatzeko urtean zehar makina bat sorpresa emateko prest daude ERAZekoak. Otsailean jaso genuen lehena, azala kolorez argitaratzean. Hurrengo sorpresa apirilaren azkenetara emango digute. Animo eta zorionak!

**Aste honetan urteko bazkidetza kuota kobratuko dugu.**

**Kultur sortzaileen datu-basea osatzen arigara** Euskal Herriko Euskara Elkarteek Topagunearekin. Datu-basea osatuta kultur arloan garatu nahi diren ekintza ezberdinetarako nora jo izango du elkarte bakoitzak. Horretarako kultur sortzaile bakoitzarekin galdetegi bat beteko du. Horregatik, zu zeu edo zeure ingurukoren bat datu-basean agertzeko interesatea iruditzen bazaizu, horren berri eman zenezake.

**Interneteko zerbitzari eskeintza.** Euskal Herriko Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topagunearen ekimenez. Jalgi zerbitzariaren konexioa eta zerbitzu-eskaintzak Berbaro bitarteko dela eskuratu ditzakezu. 10.000 pezetakoa izango da urteko kuota. Honi buruzko informazio zabalagoa nahi izan ezker, bulegoan dago eskura.



**Ardoari buruzko ikastaroko parte hartzaileek urteko ardo aurkezteko bazkaria egin zuten.**

## AGENDA

### Martxoak 15 - Apirilak 3 ERAKUSKETA

Lidia Cañetek Birmaniari buruzko zuri-beltzeko argazkiak ikusgai izango ditu tabernan.

### Apirilak 3-30

J. Urizarren margoak tabernan: oleoak, collageak eta akrilikoak.

### Apirilak 13

#### KONTZERTUA

Hysopus eta Sei Urte tabernan 21.00etan.

### Maiatzak 8

**BERTSO - TRAMA-AFARIA**  
Kurutzia Ikastolan ohizko orduan bertso-trama afaria egingo da. Egaña, Maia eta tramaren sortzaile J. Goikoetxea.

### Apirilak 30

#### BATZAR OROKORRA

Berbaro Elkartearen urteko batzar nagusia Pinondo Etxean egingo da 19.30etan. Iazko diru-kontuen berri, balorazioa eta 1998. urterako egitasmoen aurkezpena egingo da. Bazkide guztiak gonbidatuta zaudete.

### Apirilak 24

#### SARIBANAKETA

Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketaren sari banaketa Pinondo Etxean.

#### Ekainean

#### KONTZERTUA

Lorelei taldearen kontzertua tabernan.

### GAZTEEN eta AISIALDI TALDEEN AGENDA

**ASTE BURUKO IRTEERA**  
Martxoaren 28 eta 29. Olgetan Aisialdi Taldea, 5.mailatik 8.mailara arteko ikasleak.

### HIKA IKASTAROA GAZTE TALDEKOENTZAT

Martxoaren 27an, 18.30etatik 21.00etara.

Martxoaren 28an, 10.30etatik 13.00etara. Osteen bazkaria girota.

### IRTEERA

Bagabiz gazte taldea apirilaren 14tik 17ra.

### INSTITUTUKO EUSKARA ASTEA

#### Apirilak 3

12.00: Antzerkia, "Dena klowntrolpean". Oihulari Klown taldea.

#### Apirilak 20-24

Durangaldeko eta Institutuko euskarari buruzko datuekin kartelen erakusketak.

#### Apirilak 24

- AEK eta Berbaro taldeen hitzaldia.

- Euskarazko komunikabideei buruzko mahaingurua.

#### Maiatzak 7

12.45: Zazpi Eskale.

#### Maiatzak 29

9.55: Antzerkia, "Dena Klowntrolpean". Oihulari Klown taldea.

12.00: Ikasleen egunaren jaia ekitaldi ezberdinekin.

## KEXA BATI ERANTZUNA



### Sagardotegira bidaiak arrakastatsua izan zen.


Martxoaren 14ean Hernaniko Iparragirre sagardotegian ia kupel bete hutsitu zuten autobus bete Berbarokidek. Hala ere, kexarik ere jaso du Elkarteak irteera hau dela eta. Zenbaitzuren ustez bueltarako ordua goizaldeko 5etan jartzearakoan ez da kontutan izan

bazkide askoren gogoia edo nahia.

Iaz ere antolatu genuen honelako irteera bat. Bazkide guztiak kontutan hartuta sagardotegia isterakoan bueltatzea erabaki zen eta danadalakoagatik zortzik eman zuten izena. Oraingoan sagardotegira irteera antolatu duen bazkide taldeak jarritako ordutegiarekin autobusa bete eta 15 lagun kanpoan geratu dira.

Edozelan ere, bazkideen nahiak kontutan hartuko ditugu, ekintzak azken baten zuentzako, bazkideentzako antolatzen baititugu.

## Antzerki tailerrak



Antzerkiak gazteen artean eta konkretuki Durangon izan duen eskeintza urriari buelta eman nahirik, arlo honetan lehenengo pausuak eman ditzakeen esperientzia hasi dugu.

Idea honekin Guezan Ba! gazte taldea hasi bazen ere, gaur egun eskola ezberdinen inplikazioarekin proiektu zabalago bat osatuz dagoeneko bi antzezlan prestatzen ari gara.

Hasierako taldea, tailer modura hasi zen

14-16 urte bitarteko gazteek mundua ezagutu eta bertan lehenengo pausuak eman ahal izateko.

Bigarren taldea, ertainetako eskola bi eta Guezan Ba! taldearen urteko elkarlanetik sortu da eta horretarako Kurutziaga Ikastola eta Fray Juan de Zumarraga Institutuak dituzten baliabideak erabili dira. Gazteen artean antzerkia euskaraz bultzatzeko asmoak bateratu eta 14 urtetik gorako beste 15 edo 20 gaztetako talde bat osatu da.

Talde bien artean 45 laguneko koadrila eta herri ekimen zabala osatzen dute. Asteroko zitan euskera hutsean funtzionatzeaz gain, azaroan lanak kaleratzeko asmoa dute. Hauetako talderen batean partehartzeko interesa daukanak Berbarora deitu eta eginda dago. Beraz, animatu, ia denon artean animazioa sortu eta antzerki talde hauei etekina ateratzen diegun.

## Begirale kanpaina

Berbaroko Olgetan aisialdi taldeak hiru urte beteko ditu aurten. Orain arte 11 eta 14 urte bitarteko gaztxoak hartu ditugu. Adin esparru hori zabaltzeko asmoz eta urtean zehar ekintza gehiago egin ahal izateko, begirale berriak behar ditugu.

Begirale titulua atera nahi dutene-ndako ere ikastaroa antolatuko dugu ikasturtean zehar. Interesa duzuenok lehenbailehen gurekin kontaktuan jarri, ikastaroa Durangon egiteko aukera ziurtatzeko.

Edozelan ere, taldean begirale lez partehartzeko ez da beharrezkoa esperientzia edo titulurik izatea. Gazte eta umeekin irteerak etab antolatzen

lagundu nahi duzuen guztiak hurbildu. Lana bakoitzak eskeini ahal duen neurrian eginda ere gustura hartu eta eskertuko dugu. Ez galdu gero, euskararen aldeko lana egin eta ondo pasatzeko aukera paregabe hau.

